PRENTSA OHARRA

Agurainek edukiontzi marroia itxiko du azaroaren 4an

Materia organikoaren edukiontzia azaroaren 4an, asteazkena, itxiko da, eta beharrezkoa izango da txartela edo telefono mugikorrean “Ireki” aplikazioa erabiltzea hondakin organikoak uzteko.

Agurain, 26/10/30. Aguraingo Udalak hondakinak gaika biltzeko sistema berria ezartzen jarraitzen du. Gaur egun, udalerria I. fasean dago, borondatezkoa da, eta aukera ematen du herritarrak errazago egokitzeko, sistemaren funtzionamendua egiaztatzeko eta hondakinak bereizteko ohitura berriak sortzen laguntzeko.

Azaroaren 4tik aurrera, materia organikoaren edukiontzia itxita egongo da, eta beharrezkoa izango da txartela edo telefono mugikorrean “Ireki” aplikazioa erabiltzea, edukiontzi marroien gaintapa irekitzeko. Hondakin organikoak poltsa konpostagarrietan soilik utzi beharko dira edukiontzi marroian, bildutako materia organikoaren kantitatea eta kalitatea hobetzeko helburuarekin.

Etxeetan organikoa bereiztea errazteko, Udalak 10 litroko kubo aireztatuak eta poltsa konpostagarriak eskaintzen ditu doan udal-bulegoetan.

Txartela duten pertsonek azaroaren 20a baino lehen aurkeztu beharko dute baimen-dokumentua sinatuta. Baimenik entregatu ez duten etxebizitzen txartelak ez dira aktibatuko eta, aktibatuta ez daudenean erabiltzeko saiakera eginez gero, bertan behera geratuko dira txartel horiek. Horretarako, Honen ondorioz, aurrerago sisteman parte hartu nahi izatekotan, beste txartel bat eskatu beharko da udaletxean.

Txartela oraindik jaso ez dutenek eta bere etxebizitzetan hezitzailearen oharra dutenek udaletxean jaso ahal izango dute, 8:00etatik 15:00etara. Gainera, goizean joan ezin direnei txartelen bilketa errazteko, ordutegi berezia jarriko da azaroaren 3an eta 4an, 18:30etik 20:00etara. Hilaren 3an, ordutegi hori 2027ko Udal Aurrekontuen aurkezpen batzarraren ondoren izango da. 2027ko udal aurrekontuen aurkezpen batzarra 18:30ean aurreikusita dago udaletxean.

Udalak herritarrei dei egiten die hondakinen bereizketa egokian aurrera egiten jarraitzeko eta jardunaldi hauek txartela jasotzeko aprobetxatzeko, oraindik txartela ez badute.

Gaikako bilketaren sistema berriaren ezarpen barruan sartzen da jarduera hori, hondakinen bereizketa hobetzera, bildutako materia organikoaren kantitatea eta kalitatea handitzera eta hondakinen kudeaketa eraginkorrago eta iraunkorrago baterantz aurrera egitera bideratuta. Proba-faseari esker, gainera, gorabeherak detektatu eta sistemaren funtzionamendua hobetu ahal izango da, herritarren parte-hartzearekin.

alkatea.raul@agurain.eus

NOTA DE PRENSA

Agurain cerrará el contenedor marrón el 4 de noviembre

El contenedor de materia orgánica se cerrará el miércoles 4 de noviembre y será necesario utilizar la tarjeta o la aplicación del teléfono móvil “Ireki” para depositar los residuos orgánicos.

Agurain 30/10/26. El Ayuntamiento de Agurain continúa avanzando en la implantación del nuevo sistema de recogida selectiva de residuos. Actualmente, el municipio se encuentra en la Fase I, de carácter voluntario, que permite facilitar la adaptación de la ciudadanía, comprobar el funcionamiento del sistema y favorecer la creación de nuevos hábitos de separación de residuos.

A partir del miércoles, 4 de noviembre, el contenedor de materia orgánica permanecerá cerrado y será necesario utilizar la tarjeta o la aplicación del teléfono móvil “Ireki”, para abrir la sobretapa de los contenedores marrones. Los residuos orgánicos deberán depositarse únicamente en bolsas compostables y sin impropios, con el objetivo de mejorar la cantidad y calidad de la materia orgánica recogida.

Para facilitar la separación de orgánica en los hogares, el Ayuntamiento ofrece gratuitamente cubos aireados de 10 litros y bolsas compostables, disponibles en las dependencias municipales.

Las personas que ya dispongan de tarjeta deberán entregar el documento de consentimiento firmado antes del 20 de noviembre en el Ayuntamiento. Las tarjetas cuyo consentimiento no hayan sido entregados en el Ayuntamiento serán inactivadas y, si se utilizan estando inactivadas, quedarán canceladas, siendo necesario solicitar una nueva tarjeta en el Ayuntamiento.

Quienes todavía no hayan recogido la tarjeta y dispongan de la nota del educador o educadora en su portal indicando que pueden hacerlo, podrán recogerla en el Ayuntamiento, en horario de 8:00 a 15:00 horas. Además, para facilitar la recogida a quienes no puedan acudir por la mañana, se habilitará un horario especial los días 3 y 4 de noviembre, martes y miércoles, de 18:30 a 20:00 horas. El martes día 3, el reparto de tarjetas se realizará al finalizar la asamblea abierta de presentación de los Presupuestos Municipales de 2027, prevista a las 18:30 horas en el Ayuntamiento.

El Ayuntamiento anima a la ciudadanía a seguir avanzando en la correcta separación de los residuos y a aprovechar estas jornadas para recoger la tarjeta si todavía no dispone de ella.

Esta actuación forma parte de la implantación del nuevo sistema de recogida selectiva de residuos, orientado a mejorar la separación, aumentar la cantidad y calidad de la materia orgánica recogida y avanzar hacia una gestión más eficiente y sostenible de los residuos. La fase de prueba permitirá, además, detectar incidencias y mejorar el funcionamiento del sistema con la participación de la ciudadanía.

alkatea.raul@agurain.eus